

**PROGRAMA**  
4312 ETXEBIZITZA  
**ARDURADUNA**  
06 ETXEBIZITZA HERRI LAN ETA GARRAIOAK  
ETXEBIZITZA SAILBURUORDEA

**PROGRAMA**  
4312 VIVIENDA  
**RESPONSABLE**  
06 VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
VICECONSEJERA DE VIVIENDA

**MEMORIA**

**A) INGURUNE OROKOR ETA SEKTORIAL ESPEZIFIKOA.**

2011ko aurrekontu-ekitaldian, etxebizitza Programari dagokionez, 2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiria Biziberritzeko Plan Zuzentzailearen jarraibideak nagusituko dira.

Hala ere, Plan Zuzentzaile hau txertatzen den ingurune sozioekonomikoa oso desberdina da aurreko 2006-2009ko Plana egin zenekoarekin alderatuta. Izan ere, egungo errealitatearen ezaugarri nagusia krisi ekonomiko eta finantzario sakona da, langabezia-tasa handiekin, kreditu erabilgarriak txikituta, eta kaudimengabeko etxekoan unitateen kopurua handitzea. Horretaz gain, etxebizitzaren eta lurzoruaren merkatuan disfunczioak daude oraindik.

Azken aldiaren eskaria oso handia izan da, eta, neurri handi batean, finantziario-modalitate oso onuragarriak sustatu dute hori (kredituen bizi-epeen luzapena, interes-tasa baxuak, eta abar), baina inflexio bat izan du duela gutxi kreditu-baldintzak gogortu izanaren ondorioz, eta horrek soberako eskaintza sortzea ekarri du. Horrek guztiak ondorioak izan ditu prezioetan, baina baita eraikuntzaren eta etxebizitzaren sustapenaren moteltzean ere. Lurzoruari dagokionez, ondasun horren problematika konstante bat da oraindik, eta ondasun hori sortzeko prozedurak luzeak eta konplexuak dira oraindik.

Bestalde, aurreko planetan dagoeneko aurreikus zitezkeen, baina nabarmenagoak egin diren eta eskatutako esku-hartzeak konplexuagoak egiten dituzten alderdiak areagotu dira: demografiaren eta ingurumenaren arloko erronka handiagoak, premien dibertsifikazio handiagoa, eskari zorrotzago eta pluralago bat.

**A) ENTORNO GENERAL Y SECTORIAL ESPECÍFICO.**

El ejercicio presupuestario 2011, en lo que al Programa de vivienda se refiere, va a estar marcado por las directrices que emanan del Plan Director de Vivienda y Regeneración Urbana 2010-2013.

El escenario socioeconómico en que se inserta el presente Plan Director es, no obstante, muy distinto del que presidió la elaboración del anterior Plan 2006-2009. En efecto, la realidad está marcada ahora por una crisis económica y financiera profunda con elevadas tasas de desempleo, la contracción en las disponibilidades de crédito, la restricción de recursos públicos, el aumento de hogares insolventes. Persisten, además, disfunciones en el mercado de la vivienda y del suelo.

La fuerte demanda que ha caracterizado el pasado reciente y que ha estado, en gran medida, estimulada por modalidades de financiación muy ventajosas (prolongación de los plazos de vida de los créditos, bajos tipos de interés,...), ha experimentado una inflexión con el endurecimiento reciente de las condiciones crediticias y ello ha hecho emerger una oferta excedentaria. Todo ello ha repercutido en los precios pero, también, en la ralentización de la construcción y promoción de viviendas. En lo relativo al suelo, la problemática de este bien sigue siendo una constante y los procedimientos para su generación continúan siendo largos y complejos.

Se han agudizado, por otra parte, aspectos que ya se vislumbraban en planes anteriores pero que se han hecho más patentes y que vienen a complejizar más las intervenciones requeridas: retos demográficos y medioambientales de mayor envergadura, mayor diversificación de necesidades, una demanda más exigente y plural.

Bestalde, alokairuaren presentzia oso txikia da oraindik, izan ere euskal etxeokoen unitateen %7k bakarrik okupatzen baitu bere etxebizitza nagusia alokairu-erregimenean. Datu hori baxuenetakoa da autonomia-erkidego guztietan ikusitakoaren artean; izan ere, Estatu osoko batez bestekoa %13 da, Europar Batasunean erregistratutako batez besteko %25a baino askoz txikiagoa.

Hala ere, errealitatea ez da beti horrelakoa izan. Izan ere, alokairuak garrantzi handia izan du etxebizitza-parke osoan; 1950. urtean, EAEko etxebizitza nagusi guztien %76 alokatuak ziren. Ekonomiaren eta lanaren bilakaera onak, finantziarioa eskuratzeko baldintzen hobekuntzak, alokairuaren ordeztasun erostekoa sustatu duten zerga-politikek, eta alokairuko eskaintza pixkanaka txikitzeak eta errenta handiek jabeen tasa handitzea ekarri dute. Ekonomiari dagokionez, familiek erakargarriagoa ikusi dute jabetza-erregimena (askotan hipoteka-kredituen kuotak alokairu-errentak baino txikiagoak ziren).

Hala ere, azken denboraldian sortutako zailtasun ekonomikoek eta finantzarioek zorpetze larriko egoerak eragin dituzte, eta argi geratu da familia-unitate askok etxebizitzaren jabetza izateko aukerak gainbalioetsi dituztela. Finantziarioaren murrizketek "ateak itxi" dituzte jabetza eskuratzeko plan askorentzat, eta alokairua bihurtu du eskatzaile askoren aukera bideragarri bakarra.

Azken batean, alokairuaren bultzada ezinbestekoa da etxebizitza-merkatuaren arrazionalizazioaren ikuspegitik, soilik alokairuaren bitartez erantzun daitezkeen premien ikuspegitik, edo laneko mugigarritasuna sustatzearen bitartez lehiakortasun ekonomikoan aurrera egiteko premia larriaren ikuspegitik.

Bestalde, 2009. urtean 80.000 eraikin eta 325.000 etxebizitza inguruk zuten 50 urtetik gorako antzinatasuna. EAEko etxebizitza-parkearen antzinatasunak, irisgarritasun, bizigarritasun eta iraunkortasun gabeziarekin batera (efizientzia energetikoari, uren tratamenduei eta beste alderdi batzuei dagokionez), birgaitzeko esku-hartze sakonak eta oso handiak eskatzen ditu hurrengo urteetarako.

Ondare eraikia birgaitzeko premiarekin batera, gure hiri eta herrietan hirigune asko berroneratzeko premia sortzen da, gizartea eta ekonomia suspertzeko eta, azken batean, biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko.

Horretaz gain, baliabideak murrizten diren egungo testuinguruan oso garrantzitsua da jardunak lehenestea eta horien programazio zorrotz bat egitea.

Etxebizitza-politika publikoek aurre egin behar dituzten arazoetako bat da lurzorurik ez izatea, euren helburuak lortzeko ezinbesteko lehengaia izanik. Etxebizitza-eskaria duten udalerrri askok ez dute euren biztanleen premiei erantzuteko lurzorua.

Por otro lado, la presencia del alquiler sigue siendo muy reducida, ya que tan sólo el 7% de los hogares vascos ocupan su vivienda principal en régimen de arrendamiento. Este dato es de los más bajos de los observados en el conjunto de las Comunidades Autónomas, cifrándose la media del conjunto del Estado en el 13%, y muy inferior al 25% de media registrado de la Unión Europea.

Sin embargo, la realidad no siempre ha sido así. De hecho, el alquiler ha tenido un gran peso en el conjunto del parque de viviendas, alcanzando en 1950 al 76% del total de viviendas principales de la CAPV. La favorable evolución económica y laboral, la mejora de las condiciones de acceso a la financiación, las políticas fiscales que han incentivado la compra frente al alquiler, junto con una progresiva estrechez de la oferta en alquiler y rentas elevadas, han ido incrementando la tasa de personas propietarias. Las familias han encontrado un mayor atractivo, en términos económicos, en el régimen de propiedad (frecuentemente las cuotas de crédito hipotecario resultantes eran inferiores a las rentas de alquiler).

Las dificultades económico-financieras surgidas en los últimos tiempos, han hecho, sin embargo, aflorar situaciones de grave endeudamiento y ha evidenciado una sobreponderación de las posibilidades de acceso a la propiedad de la vivienda de muchos núcleos familiares. Las restricciones de financiación han "cerrado la puerta" a muchos planes de acceso a la propiedad y han convertido al alquiler en la única opción viable de muchas personas demandantes.

En definitiva, el impulso del alquiler resulta imprescindible desde la óptica de la racionalización del mercado de la vivienda, de la respuesta a necesidades que sólo a través del alquiler pueden ser resueltas o desde la urgencia de avanzar en competitividad económica a través del fomento de la movilidad laboral.

Por otro lado, cerca de 80.000 edificios y unas 325.000 viviendas tienen en 2009 una antigüedad superior a los 50 años. La antigüedad del parque de viviendas existente en la CAPV, junto a la falta de accesibilidad, habitabilidad y sostenibilidad (en términos de eficiencia energética, tratamientos de aguas y otros), requiere de intervenciones de rehabilitación profundas y muy significativas en los próximos años.

Junto a la necesidad de rehabilitación del patrimonio edificado, surge la necesidad de regenerar muchos espacios urbanos en nuestras ciudades y pueblos, que propicien una recuperación socio-económica y una mejora al fin en la calidad de vida de sus habitantes.

Además, en el contexto actual de restricción de recursos es importante priorizar las actuaciones y efectuar una programación rigurosa de las mismas.

Uno de los problemas a los que se enfrentan las políticas públicas de vivienda, es la falta de suelo, materia prima indispensable para lograr sus objetivos. Muchos de los municipios con demanda de vivienda, no disponen de suelo para dar respuesta a las necesidades de sus residentes.

Hala ere, hiri horien barruan askotan gaizki aprobetxatutako lurzorua, ordezkatu beharreko eraikuntza zaharkituak edo hondatuak, edo orube hutsak ikus ditzakegu, eta, beraz, geroz eta modu argiagoan eskatzen da barne-berroneratzeko esku-hartze politika aktibo bat egitea.

Ekintza publikoaren alor zuzenekoenean, esku-hartzearen testuinguruak, diagnostikoan jaso denez, ahulezia nabarmen batzuk ditu: Aldez aurretik finkatutako helburuetara iristen ez den alokairuko etxebizitza babestuen produkzioa, desberdintasuna esku-hartze publikoen lurralde-banaketan, eta, salbuespenak salbuespen, intentsitate txikia eragile pribatuek segmentu babestuen bitartez premiei ematen dieten estalduran, batez ere alokairu-erregimenean. Indar esanguratsueni dagokionez, hutsik dauden etxebizitzaren tasan izandako beherakako bilakaera azpimarra daiteke.

## **B) 2011ko ETXEBIZITZA PROGRAMAREN DEFINIZIO OPERATIBOA.**

2011ko aurrekontu-ekitaldian, etxebizitza Programari dagokionez, 2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiri Biziberritzeko Plan Zuzentzaile berriaren jarraibideak nagusituko dira.

Planaren asmoa da etxebizitzaren esparruan argi eta garbi agertzen diren erroka handiei aurre egitea. Horietatik, lehenengoa da alokairu-parkearen presentzia handitzea, etxebizitza-premiak ebazteko formula gisa. Aldi berean, Planaren asmoa da lurraldeen arteko oreka lortzea, etxebizitza-premia handienak dituzten zona geografikoetan ahalegin handiagoa eginez.

Bigarren erroka handia da hiri-birgaitze eta -berroneratzeko politika berri baten buru izatea, etorkizuneko konponbide eraginkor eta iraunkor gisa. Hazkunde intentsiboa sustatzea, azken urteetan nagusitatu den hazkunde estentsiboaren osagarri gisa.

Hirugarren erroka da lurzorua kudeaketa-politika aktibo bat sustatzea, etxebizitza berriaren eraikuntzako sektoreari arintasuna emateko eta lurraldeen arteko banaketa orekatuagoa lortzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Aurreko erroken aurre egiteko abian jarriko diren palankak honako bi hauek dira: inplikaturiko eragile guztien benetako mobilizazioa lortzeko duen gobernantza berri bat, eta etxebizitza-politikaren zerbitzurako baliabideen optimizazioa.

2010-13ko Etxebizitzako eta Hiri Biziberritzeko Plan Zuzentzailea garatzeko ardatz estrategikoak 5 dira:

### **1. ardatza. Etxebizitzarako sarrera bultzatzea, baliabideak nagusiki alokairurantz bideratuta.**

Sin embargo, nos encontramos con frecuencia dentro de esas mismas ciudades, suelos mal aprovechados, construcciones obsoletas o ruinosas con necesidad de sustitución, o solares vacíos, reclamando de forma cada vez mas evidente, una política de intervención activa de regeneración interior.

En la órbita más directa de la acción pública, el contexto de intervención viene marcado, tal como ha quedado reflejado en el diagnóstico, por algunas debilidades destacables: una producción de viviendas protegidas en alquiler inferior a los objetivos prefijados, la desigualdad en el reparto territorial de las intervenciones públicas y la baja intensidad, salvo excepciones, en la implicación de los agentes privados en la cobertura de necesidades a través del segmento protegido, principalmente en régimen de alquiler. Entre las fortalezas más reseñables puede, resaltarse la evolución descendente en la tasa de viviendas vacías.

## **B) LA DEFINICIÓN OPERATIVA DEL PROGRAMA DE VIVIENDA 2011.**

El ejercicio presupuestario 2011, en lo que al Programa de vivienda se refiere, va a estar marcado por las directrices que emanan del nuevo Plan Director de Vivienda y Regeneración Urbana 2010-2013.

El Plan pretende hacer frente a los grandes retos que emergen con claridad en el ámbito de la vivienda. El primero de ellos consiste en incrementar la presencia del parque de alquiler como fórmula de resolución de necesidades de vivienda. Al mismo tiempo el Plan busca un equilibrio territorial, enfatizando los esfuerzos en aquellas zonas geográficas con mayores necesidades de vivienda.

El segundo gran reto consiste en liderar una nueva política de rehabilitación y regeneración urbana como solución eficiente, sostenible y de futuro. Potenciar el crecimiento intensivo, como complemento al crecimiento extensivo que ha venido siendo el imperante en los últimos años.

El tercero es promover una política activa de gestión de suelo como condición necesaria para dar fluidez al sector de la construcción de vivienda nueva y lograr un reparto territorial más equilibrado.

Las palancas que van accionarse para hacer frente a los anteriores retos son dos: una nueva gobernanza que logre la auténtica movilización del conjunto de actores implicados y la optimización de los recursos al servicio de la política de vivienda.

5 son los ejes estratégicos en torno a los cuales se articula el Plan Director de Vivienda y Regeneración urbana 2010-13:

### **Eje 1. Favorecer el acceso a la vivienda orientando los recursos preferentemente al alquiler.**

Alderdi operatiboari dagokionez, horrek esan nahi du Planaren indarraldian sustatzen diren babes publikoko etxebizitza berrien %40 gutxienez alokairu-erregimenean izango direla. Era berean, alokairuko partikularren etxebizitzaren eskaintza sustatzeko lan egingo da, horretaz gain alokairuaren tratamendua hobetzeko zerga-arloko neurriak sustatuz.

## **2. ardatza. Hiri-birgaitze eta -berroneratzeko politika berri bat formulatu eta zuzentzea.**

Horretarako, lehenetsutako esku hartzeko jardunak definituko dira, eta horiekin batera, programa estrategikoekin lotutako laguntza-sistema berri bat diseinatuko da eta EAE osoa estaliko duen birgaitze eta berroneratzean esku hartzeko sare bat egituratuko da.

## **3. ardatza. Lurzoruaren kudeaketa-politika aktibo bat sustatzea.**

Arlo horretan, ezinbestekoa da eragile guztien artean lurzoru erabilgarriari buruzko informazioa eta gardentasuna hobetuko duten jardunak martxan jartzea, baita lurzoruaren eskuragarritasuna ahalbidetuko duten eta etxebizitza babestuen eraikitzeak izapideak bizkortuko dituzten mekanismoak garatzea ere.

## **4. ardatza. Etxebizitza-politikaren zerbitzurako baliabideak eta tresnak optimizatzea.**

Ardatz honetan bildutako jardunen helburua da etxebizitzaren sektoreko sozietateen sarea berregituratzea, sinergiak lortzeko eta eraginkortasuna handitzeko, eta etxebizitza babestuen eskariaren eta esleipenaren kudeaketan aitzindari izango den Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuko publiko bat egitea.

## **5. ardatza. Etxebizitza-politikaren gobernantza berri baterantz aurrera egitea.**

Hau da, administrazio elektronikorantz aurrera egiteko prozesuak bizkortzea, tokiko administrazioarekin harreman-eredu berri bat artikulatzea, herritarren arretarako tresnak modernizatzea, eta etxebizitza- eta lurzoru-politikaren ebaluazioan sakontzea.

2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiri Biziberritzeko Plan Zuzentzailea 2011rako helburu zehatzetan gauzatzea 2011ko etxebizitza-programaren bitartez egiten da, programak honako helburu, ekintza eta adierazle hauek gauzatzen baititu:

En términos operativos se traduce en que, como mínimo, el 40% de las nuevas viviendas de protección pública que se promuevan durante la vigencia del Plan sean en régimen de alquiler. Se trabajará asimismo para promover la oferta de viviendas de particulares en alquiler, proponiendo además medidas fiscales orientadas a mejorar el tratamiento del alquiler.

## **Eje 2. Reformular y liderar una nueva política de rehabilitación y regeneración urbana.**

Para ello se van a definir actuaciones de intervención prioritaria, que se va a acompañar del diseño un nuevo sistema de ayudas vinculado a programas estratégicos y la estructuración de una red de intervención en materia de rehabilitación y regeneración que cubra toda la CAE.

## **Eje 3. Promover una política activa de gestión de suelo.**

En este ámbito resulta imprescindible poner en marcha actuaciones que mejoren la transparencia e la información sobre suelo disponible entre todos los agentes, así como desarrollar mecanismos que favorezcan la obtención de suelo y agilicen los trámites pertinentes para la edificación de vivienda protegida.

## **Eje 4. Optimizar los recursos e instrumentos al servicio de la política de vivienda.**

Las actuaciones que engloba este eje van dirigidas a reestructurar el entramado societario del sector de la vivienda para lograr sinergias y ganar en eficiencia, y estructurar un Servicio Vasco de Vivienda que sea referente en la gestión de la demanda y adjudicación de vivienda protegida.

## **Eje 5. Avanzar hacia una nueva gobernanza de la política de vivienda.**

Es decir, acelerar los procesos de avance hacia la administración electrónica, articular un nuevo modelo de relación con la administración local, modernizar los instrumentos de atención a los ciudadanos y profundizar en la evaluación de la política de vivienda y suelo.

La materialización del Plan Director de Vivienda Y Regeneración Urbana 2010-2013, en objetivos concretos para 2011 se realiza a través del programa de vivienda 2011 que materializa los siguientes objetivos, acciones e indicadores:

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<b>1. ARDATZA. ETXEBIZITARAKO SARRERA BULTZATZEA, BALIABIDEAK NAGUSIKI ALOKAIURANTZ BIDERATUTA.</b>		<b>EJE 1. FAVORECER EL ACCESO A LA VIVIENDA ORIENTANDO LOS RECURSOS PREFERENTEMENTE AL ALQUILER.</b>
1.A. ALOKAIURUKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA (HASITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA).	2.050	1.A. EDIFICACIÓN DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER (N. VIVIENDAS INICIADAS).
1. Zuzkidura-alojamenduen eraikuntza.	700	1. Edificación de alojamientos dotacionales.
2. Zuzkidura-alojamenduen eraikuntza udalen eskutik.	100	2. Edificación de alojamientos dotacionales por parte de ayuntamientos.
3. Etxebizitza sozialen eraikuntza.	1.050	3. Edificación de viviendas sociales.
4. Etxebizitza babestuen/itunduan eraikuntza.	200	4. Edificación de viviendas protegidas/concertadas.
1.B. SALTZEKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA BERRIEN SUSTAPENA (HASITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA).	2.800	1.B. PROMOCIÓN DE NUEVAS VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA PARA COMPRA (N. VIVIENDAS INICIADAS).
1. Etxebizitza babestuen/itunduan eraikuntza.	2.100	1. Edificación de viviendas protegidas/concertadas.
2. Alokairuko etxebizitza babestuen eraikuntza, erosteko aukerarekin.	200	2. Edificación de viviendas protegidas en alquiler con opción de compra.
3. Erregimen tasatuko autonomia erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntza (BOET).	100	3. Edificación de viviendas de protección oficial de régimen tasado autonómicas (VPOT).
4. Udaleko erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntza (UET).	400	4. Edificación de viviendas de protección oficial de régimen tasado municipal (VTM).
1.C. BABESTUTAKO ALOKAIRU PARKEA HANDITZEA.		1.C. DIMENSIONAMIENTO DEL PARQUE DE ALQUILER PROTEGIDO.
1. Alokairu-parke publikoaren kuota guztizko parke babestuaren gainean (2011/12/31ko %a).	35%	1. Cuota parque público de alquiler sobre parque protegido total (en % a 31.12.2011).
2. Babestutako alokairu-parkearen bilakaera (alokairuko parke publikoa osatzen duten etxebizitzen kopurua 2011/12/31n).	22.000	2. Evolución del parque de alquiler protegido (N. viviendas que componen el parque publico en alquiler a 31.12.2011).
1.D. ALOKAIURUKO PARTIKULARREN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA SUSTATZEA.	5.300	1.D. PROMOVER LA OFERTA DE VIVIENDA DE PARTICULARES EN ALQUILER.
1. Biziguneren babestutako alokairu-parkea osatzen duten etxebizitzen kopurua.	4.833	1. Número de viviendas que integran el parque de alquiler protegido de Bizigune.
2. Bitartekarien bidezko alokairuan dauden etxebizitzen kopurua.	300	2. Número de viviendas en alquiler intermediadas.
1.E. FINANTZIAZIO ESPARRU EGOKI ETA EGONKORRA EMATEA.		1.E. PROVEER DE UN MARCO DE FINANCIACIÓN ADECUADO Y ESTABLE.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadin lanean diharduten kreditu-erakundeen arteko Finantza Hitzarmenetako baliabideen bitartez sistemari emandako finantzazioa (milioi eurotan).	538	1. Financiación aportada al sistema a través del mecanismo de los Convenios Financieros entre el Gobierno Vasco y las entidades de crédito operantes en Euskadi (en millones de euros).
<b>2. ARDATZA. HIRI BIRGAITZE ETA BERRONERATZEKO POLITIKA BERRI BAT FORMULATU ETA ZUZENTZEA.</b>		<b>EJE 2. REFORMULAR Y LIDERAR UNA NUEVA POLÍTICA DE REHABILITACIÓN Y RENOVACIÓN URBANA.</b>
1. Auzoen erreformarako eta hiria berroneratzeko jardunak (onartutako proiektuen kopurua).	5	1. Actuaciones de reforma de barrios y regeneración urbana (N. de proyectos aprobados).
2. Irisgarritasunerako eta arkitektura-oztopoak ezabatzeko programa (Planetan eta Obretan onartutako proiektuen kopurua).	180	2. Programa de accesibilidad y de supresión de barreras arquitectónicas (N. proyectos aprobados en Planes y Obras).
3. Etxebizitzen birgaitzea (Adierazlea: diruz lagundutako etxebizitza birgaituen kopurua = alor horretako administrazio-ebazpenak).	14.500	3. Rehabilitación de viviendas (Indicador: número de viviendas rehabilitadas subvencionadas = resoluciones administrativas en la materia).
4. Eraikin osoen birgaitzea (Adierazlea: eraikinean bilduta dauden eta birgaitzeak mesede egin dien etxebizitzen kopurua).	2.800	4. Rehabilitación de edificios completos (Indicador: número de viviendas integradas en el edificio y beneficiadas por la rehabilitación).
<b>3. ARDATZA. LURZORUAREN KUDEAKETA POLITIKA AKTIBO BAT SUSTATZEA.</b>		<b>EJE 3. PROMOVER UNA POLÍTICA ACTIVA DE GESTIÓN DE SUELO.</b>
<b>1.A. LURZORUA LORTZEA (OPERADOREEK LORTUTAKO LURZORUAREN GAINEAN ERAIKI DAITEZKEEN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN KOPURUA).</b>	4.900	<b>1.A. OBTENCIÓN DE SUELO (N. DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA EDIFICABLES SOBRE SUELO OBTENIDO POR OPERADORES).</b>
1. Sailak kudeatutako lurzoru-lorpena.	2.200	1. Obtención de suelo gestionada por el Departamento.
2. Orubidek-Visesak kudeatutako lurzoru-lorpena.	2.000	2. Obtención de suelo gestionada por Orubide-Visesa.
3. Gainerako operadoreek kudeatutako lurzoru-lorpena.	200	3. Obtención de suelo gestionada por el resto de operadores.
<b>4. ARDATZA. ETXEBIZITZA POLITIKAREN ZERBITZURAKO BALIABIDEAK ETA TRESNAK OPTIMIZATZEA.</b>		<b>EJE 4. OPTIMIZAR LOS RECURSOS E INSTRUMENTOS AL SERVICIO DE LA POLÍTICA DE VIVIENDA.</b>
1. Babestutako parke publikoaren ikuskapena (ekitaldiaren amaieran metatu diren ikuskatutako etxebizitzen kopurua).	58.000	1. Inspección del parque público protegido (N. viviendas inspeccionadas acumuladas al cierre del ejercicio).
2. Enpresa Sektore Publikoaren arrazionalizazioa (programatutako eta egikaritutako operazioen kopurua).	2	2. Racionalización del Sector Público empresarial (Número de operaciones programadas y ejecutadas).

<b>HELBURUA                      EKINTZA                      ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA                      MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO                      ACCION                      INDICADOR</b>
3. ETXEBIDE Etxebitzaren Euskal Zerbitzua. Erabiltzaileek eta bezeroek jasotako zerbitzuari buruz egindako balorazioa (Adierazlea: gogobetetze-maila neurtzeko 0tik 10era bitarteko balorazio-eskala zuen inkesta).	<b>7,0</b>	3. ETXEBIDE, Servicio Vasco de la Vivienda. Valoración del servicio prestado, efectuada por usuarios y clientes (Indicador: encuesta de medición de satisfacción con escala de valoración de 0 a 10).
<b>5. ARDATZA. ETXEBIZITZA POLITIKAREN GOBERNANTZA BERRI BATERANTZ AURRERA EGITEA.</b>		<b>EJE 5. AVANZAR HACIA UNA NUEVA GOBERNANZA DE LA POLÍTICA DE VIVIENDA.</b>
1. Etxebizitzako eta hiria berroneratzeko politikaren urteko ebaluazioa (txosten kopurua).	<b>4</b>	1. Evaluación anual de la política de vivienda y regeneración urbana (Número de informes).
2. Administrazio elektronikoko plataformaren bidez kudeatutako etxebizitza-prozesuak (sartutako prozesuen kopurua).	<b>6</b>	2. Procesos de vivienda gestionados desde plataforma de administración electrónica (Número de procesos incorporados).
3. Herritarren partaidetzako prozesuak (inpaktuaren adierazle kualitatiboak).	-	3. Procesos de participación ciudadana (indicadores cualitativos de impacto).